

“AMORIS LAETITIA”
(MAITASUNAREN POZA)

“Amoris laetitia” izenburuagaz agertu dau Frantzisko Aita Santuak familiari buruzko dokumentu ederra. Idazki honetan kontuan hartzen ditu Aita Santuak Erroman, 2014. eta 2015. urteetan argitaratutako Gotzainen Sinodoetako azken txostenak. “Familian bizi dan maitasunaren poza, Eliza osoaren poza ere bada (...). Nahiz eta kolore guztietako krisialdiak, eragozpenak eta trabak jasan, familia da gaurko gazteek ere gehien baloratzen duten erakundea” dino Aita Santuak.

Familiak daukazan arazoak asko eta korapilotsuak diranez, Elizak eten barik jardun behar dau bide barriak zabaltzen. Normala da Elizaren barnean ere ikuspegi desberdinak sortzea bai doktrina aldetik eta bai pastoral aldetik. Hori holan izan da eta izango, Espiritu Santuak egia osora garoazanez, Kristoren argitan ikusteraino.

Agiri honek bi helburu nagusi ditu. Bata ezkontzaren eta familiaren edertasuna estimatzea. Horretarako beharrezkoak dira bihotz-zabaltasuna, konpromisoa, leialtasuna, zintzotasuna, pazientzia bezalako bertuteak aintzat hartzea. Eta beste helburua, “Errukiaren Urtea” danez, familiaren barnean, errukiaren, bakearen eta pozaren testigu izatea.

Lehenengo kapitulua

“Amoris laetitia” edo “Maitasunaren poza” dokumentu mardula dogu. Hainbat kapitulutan banatua. Lehenengoan, Bibliari begira jarten gaitu. Bertan, hasieratik azkeneraino agertzen baitira ezkontzaren eta familiaren gorabeherak. Hona hemen testu ezagun batzuk: “Jaungoikoak bere antzeko egin ebazan gizona eta emakumea. Biak bedeinkatu ebazan esanez: Hazi eta ugaritu zaiteze” (Gn 1, 27-28); “Uri Santua, Jerusalem barria, ikusi neban, Jaungoikoaren izenean zerutik jaisten zala, emazte apaindua senarrentzat lez” (Ap 21, 2). Ezin ahaztu Abestirik ederrenaren aipamena: “Nire maitea neurea da, eta ni harena. (...) Ni neure maitearena naz, eta nire maitea, neurea” (Ct 2, 16; 6, 3). Eta Ebanjelioan Jesusen berba distiratsuak: “Ez dozue irakurri Egileak, hasieratik, gizon eta emakume egin ebazala?, eta hauxe esan ebalá: Horregaitik, gizonak aita eta ama itzi egingo dauz, eta bere emazteari lotuko jako, eta biak haragi bat bakarra izango dira? Beraz, harrezkero ez dira bi, haragi bat bakarra baino?” (Mt 19, 4 – 6)

Nazaretoko Famili santua jarten dau kristau familien eredu. Jesusek gizon izaten familia baten barnean ikasten dau. Hortik jatorko Jesusi familienganako joera samurra. Merezi dau Fratizisko Aita Santuaren berbak aipatzea: “Jesus Pedroren etxera joango da honen amaginarreba osatzera (Mk 1, 30-31); Jaioren etxean honen alabatxoa biztu eta Betaniako lagunaren etxean Lazaro; Naingo emakume alargunaren negarrak entzungo ditu eta baita perlesiadunaren aitaren alarauak ere. Mateo eta Zakeo euren etxeetan aurkitzen ditu. Eta emakume pekataria Simon fariseuaren etxean. Familien estutasunak eta tentsioak bere paraboletan nabaritzen dira, esaterako, seme galduarena edo mahastira bidalitako seme bien jokabidea edo mahastiko langileen bortizkeria. Ezin da ahaztu Kanako ezteguetan gertatutakoa ezkonbarriak ardo barik gelditu ez daitezkan, ezta erregeak bere semearen ezteguetara egindako konbitea ukatzeaz hartutako bihotzondokoa edo drakma bat gal-

"AMORIS LAETITIA" (MAITASUNAREN POZA)

AMORIS LAETITIA



THE JOY OF LOVE POPE FRANCIS



APOSTOLIC EXHORTATION ON LOVE IN THE FAMILY

du izan eban emakume pobrearen larritasuna bere dirutxoak aurkitu arte. Jaungoikoaren Berbea ez da, ba, agertzen tesi abstraktuen sekuentzia bezala, familien gorabeheretako bide-lagun lez baino”.

Laburtuta, gauzarik ederrena hauxe da: “alkar maite izan eta bizia sortzen daben bikoteak, Jaungoiko Hirutasunaren irudi eta Kristoren eta Elizaren arteko maitasunaren ezaugarri bihurtzen dirala”.

Bigarren kapitulua

Bigarren kapituluak gaurko familien errealitatea eta erronkak ditu aztergai. Ez ditu arazo guztiak aipatzen baina bai gordinenak. Kultura aldetik bistan dagoz aldaketak. Gaur egun familiak ez dauke, gizarte egitura aldetik, lehenago bezalako laguntzarik. Indibidualismoaren eraginez, familiako kideak bere bizimodua daroa. Familia barik, kide bakotzak irla bat dirudi. Hortik sortzen dira hainbat tirabira eta gatazka.

Kontuan hartzekoa gaurko lan antolaketak dakarren estresa. Ordu desberdinetako lanak, sarritan ia ezinezko egiten dau familian alkartzea jateko ere. Badagoz beste zalantzako gauzak ere. Esaterako, egiazko pertsonalismoaren izenean, aurreko hitzarmenak baztertzea. Sarritan harrokeriak eta aise-tasunak bultzatuta. Bideak aukeratzeko, askatasuna gauza ederra da, baina norberak ez baditu helburu nobleak, erraz jausten da norberekerian. Egitez, ezkontzak gitxitu diran nazino askotan, gehitu egin dira bakarrik bizitzeko aukera hartu dabenak edo ez dira behintzat alkarrekin bizi. Badira justiziarren nahia dabenak, baina txarto ulertu ezker, zerbitzugintzarako baino ez da izaten egarri hori. Gaur egun erraz nahastatzen da egiazko askatasuna, bakotzak berea egiteko asmoekin. Edozein jokabidek balio dau norberaren gustuak aurrera ateratzeko. Holako giroan ezkontzako leialtasunaren eta eskusibotasunaren konpromisoak pikutara doaz.

Baina kristauok ezin dogu modan dagozan ideiakaitik edo gitxiagotasun usteagaitik, ezkontzako edertasuna eta duintasuna aurkeztu barik geratu. Hori gizarteari egindako lapurreta lotsagarri bat izango litzake. Ez dago salaketa hutsean gertzerik. Ezta agintarien indarrezko arauak aurrean jartzerik ere. Kristauon helburua izan behar dau ezkontzaren eta familiaren aldeko motibazioak eta arrazoiak aurkeztea. Pertsonak horrela hobeto gertatuta egon daitezcan Jaungoikoaren grazia onartzeko.

Ez dauko Aita Santuak lotsarik autokritika egiteko. Bikotearen alkar maitasuna baino gehiago azpimarratu izan da sarritan seme-alabak izatea. Beste askotan ez deutsegu ezkonbarriei lehenengo urteetan hainbeste lagundu. Eta beste batzuetan ezkontzaren idealak lar abstraktuak jarri izan ditugu bizitzeko. Eta sarritan ez dogu errespetatu bakoetak bere kontzientziaren arabera al dan ondoen Ebanjelioaren balioak onartzea. Kontzientzia ondo hezten arduratzea da gauza bat eta beste bat kontzientzia ordezkatzeta. Elizaren irakaspenak ezkontzari eta familiari buruz, ez dira askorentzat, Jesusen errukiz beteriko mezuaren ispilu. Besteak beste, emakume samaritarren eta adulterioan bizi zan emakumearen kasuak erakusten dabe zelakoa zan Jesusen samurtasuna.

Ia ezinean diran familiak, gorriak ikusten dabez. Esaterako, arrazoi bat edo besteagaitik, semetxoa bakarrik hazi beharrean dagoan amak, lan egin ahal izateko umetxoa nori laga ez badauka, ume horrek hainbat arrisku izango ditu pertsona heldu izatea lortzeko. Eta holako kasuak ez dira sermoi poto-loekin konpontzen.

Ezin alboratu gaurko behin-behineko kulturaren eragina. Argi ikusten da hori afektibitate hartu-emonetan. Gaur bategaz bihar beste bategaz. Gauzekin gertatzen dana. Erabili eta bota, balio dauan bitartean etekin handiena atera eta gero zaborrontzira. Pertsonak bere onerako darabiltzana, logika berbe-

raz izango da bera ere baztertua. Nartzisistak azken baten nartzisisten erpeetan jausten dira. Ezkontzaren krisiak bikote bariak sortzera eroan ohi dau eta familien arteko tirabirak eta liskarrak ugaritzera.



Hor dagoz pornografía eta sexu-komertzializazioa eta emakumeen salerosketa, Interneten bidez indartuz doazenak. Badira gazteak, ezkontzako asmoa izanda ere, eskasian egonik, pisutxo bat ere lortu ezin dabenak. Familia batek bere etxea behar dau. Beste batzuk bildurra deutsoe etorkizunari. Eta askok, egungo kulturak bultzaturik, ezin dabez ezkontzaren luzaroko konpromisoak ulertu ere egin.

Nazino askotan hainbeste ume jaioten dira ezkontzatik kanpo. Horretariko gehienak amagaz edo aitagaz biziko dira. Eta umetxoen sexu-esplotazioa eskandalagarria da. Gerra eta beste hainbat arrazoik eragindako derrigorrezko migrazioak

familien loturak apurtzea dakar. Zaharrak eta gaixoak egungo kulturari ez dauke lekurik. Eutanasiaren eta buru-hiltzearen mehatxua gainean daro. Drogazaletasunak, alkoholismoak eta sinesgabetasunak ere ezkontzari eta familiari kalte egiten deuteso. Leku askotan poligamia onartzen da eta baita ezkontza konbinatuak ere. Ia gauza normaltzat jotzen da ezkondu aurretik bikoteak elkarrekin bizitzea; eta ez bakarrik mendebaldean.

Zabalduz doa "gender" deritxon pentsaera, hau da, gizonen eta emakumeen arteko desbardintasun biologikoa ukatzeraino doan pentsaera. Eta iraultza bioteknologikoaren bidez, gizakion ugaltzea goitik behera aldatzen da. Kasu batzuetan emakumeen gorputzak manipulatu eta merkantilizatzeraino. Matxismoak ere gogor dihardu. Badira nazio batzuk andrazkoen genitalen ablazioak oraindino defenditzen dabezanak. Baita gayen arteko ezkontzak eta lesbianen artekoak ere. Seme-alaben heziketan aitaren falta nabaritzen dan familiak geroago eta gehiago dira...

Zer egin hain egoera latz honen aurrean?

Aita Santua itxaropentsu agertzen jaku. "Familiaren indarra funtsean maitatzeko eta maitarazteko ahalmenean datza. Nahiz eta gordin zauriturik egon familia bat, eskerrak maitasunari, zulotik urten leike. Ez dago eskubiderik, ebanjelizatze bide barriak sortu beharrean, beti hileta jotzen jarduteko. Zailtasun ikaragarrien aurrean, ekintza profetikoak eta maitasunaren as-mamena landu behar da" dino uste osoz. Bide hori egiten saiatuko da "Amoris laetitia", dokumentu bikainaren bidez.

A. Olea